

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TELEBISTAKO PRODUKZIO BATEN LANERAKO PLANAREN SEGIMENDUA	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0370		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produkzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebista-produktuaren lanerako prozesuen kontrola	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ikus-entzunezko lanak produzitzeko araudiaren kontrola (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Telebista-programen merkataritza-sustapena eta -ustiaketa		40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0209\_3 TELEBISTA-PRODUKTUAREN LANERAKO PROZESUAK KONTROLATZEA ETA AZTERTZEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Telebistako produkzioaren kudeaketari dagozkion administrazio-prozedurak aplikatzea, indarrean dagoen legediari jarraikiz.
- E1.1 Telebistako produkzioko enpresa edo sail baten funtzionamenduari buruzko oinarritzko dokumentu orokorrak zerrendatzea eta deskribatzea.
  - E1.2 Langile teknikoaren eta artistikoen soldata-orrietako informazioa (Gizarte Segurantzaren, PFEZa, etab.) identifikatzea eta interpretatzea, kontratu-mota ohikoaren arabera.
  - E1.3 Ikus-entzunezko sektorearekin lotutako enpresa bati dagokion zerga-egutegia deskribatzea.
  - E1.4 Ikus-entzunezko programak ekoiztean sortzen diren kontabilitate-dokumentuak identifikatzea, eta antolaketa azaltzea produkzioaren memoria ekonomikoan.
  - E1.5 Banku-entitateekin egiten diren finantzaketa-eragiketa nagusiak deskribatzea, kudeaketan erabiltzen diren kontzeptuak azalduz.
  - E1.6 Ikus-entzunezko programa baten produkzioaren lanerako planetik eta aurrekontutik abiatuz:
    - o Produkzioaren administrazio-kudeaketarako beharrezkoak diren dokumentuak egitea eta/edo betetzea, aplikazio informatikoak erabiliz.
    - o Ekipo teknikoaren, artistikoaren eta laguntzaileen soldata-orriak ordaintzeko inprimakiak egitea.
    - o Produkzio-jarduerak sortzen dituen kontabilitate-dokumentuak sailkatzea, eta produkzioaren memoria ekonomikoan antolatzea.
    - o Hornitzaileei eta zerbitzuei egin beharreko ordainketak kalkulatzeko, salerosketa- edo alokairu-kontratuari eta zehaztutako aurrekontuari jarraikiz.
    - o Egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburua betetzea.
- A2: Bere lan-ingurunean sortzen diren gatazkei aurre egitea, taldeko kide guztiek arazoaren sorburua detektatzeko lanetan parte har dezaten lortuz eta negoziatuz, balio-judizioak saihestuz, gatazka konponduz, eta alda daitezkeen alderdi horietan jarriz arreta.
- E2.1 Negoziazioa kontzeptua eta negoziazioaren elementuak definitzea.
  - E2.2 Negoziazio-egoera batean izan daitezkeen portaera-motak eta haien eraginkortasuna identifikatzea.
  - E2.3 Negoziazio-estrategia arruntenak deskribatzea, eta enpresan gatazkek agertzeko egoera ohikoekin lotzea.
  - E2.4 Negoziazio bat prestatzeko metodo egokienak baloratzea, informazioa jasotzeko faseak eta indarren erlazioaren ebaluazioa kontuan izanik eta akordio batzuk aurreikusiz.
- A3: Erabakiak hartzea, erabaki hori hartzea bultzatzen duten baldintzei buruz hausnartuz, eta konponbideei dagokienez besteren iritzia kontuan izanik.
- E3.1 Egoera jakin batean erabil daitezkeen erabaki-motak identifikatzea eta sailkatzea.
  - E3.2 Erabaki bat hartu eta egokiena aukeratzea eskatzen dute egoerak aztertzea.
  - E3.3 Irtenbide bat edo erantzun bat bilatzeko metodoa erabiltzea.
  - E3.4 Besteen iritzia errespetatzea eta kontuan hartzea, baita norberaren iritzien kontrakoak badira ere.
- A4: Lan-ingurunean motibazio-prozesua bultzatzea, laneko giroa hobetzea erraztuz eta langileek enpresaren helburuekiko konpromisoa har dezaten erraztuz.

- EI4.1 Lan-inguruneko motibazioa definitzea.
- EI4.2 Motibazioari buruzko teoria nagusiak azaltzea.
- EI4.3 Lan-ingurunean aplika daitezkeen motibazio-teknikak identifikatzea.
- EI4.4 Simulazioetan, egoera bakoitzerako egokiak diren motibazio-teknikak aukeratzea eta aplikatzea.

A5: Komunikazio-teknikak eraginkortasunez erabiltzea bere lan-ingurunean, jarraibideak eta informazioa jasotzeko eta emateko, ideiak eta iritziak trukatzeko, zereginak esleitzeko eta proiektuak koordinatzeko.

- EI5.1 Mezu batean erabiltzen den komunikazio-mota eta komunikazio ona lortzeko erabilitako estrategiak identifikatzea.
- EI5.2 Komunikazio-prozesu baten etapan sailkatzea, eta ezaugarriak zehaztea.
- EI5.3 Mezu argia duen komunikazio ona transmisioaren helburu nagusia desitxuratzen edo okertzen duten bideetatik bereiztea.
- EI5.4 Mezu bat komunikatzean, esandakoaren eta jasotakoaren artean aldea dagoenean, komunikazioan izandako asaldurak ondorioztatzea.
- EI5.5 Mezu baten ulermena zaildu dezaketen interferentziak aztertzea eta baloratzea.

## Edukiak

### 1. Telebista-produkzioaren administrazio-kudeaketa

- o Administrazio- eta merkataritza-dokumentazioa: Soldata-orriak. Kontabilitate-dokumentuak.
- o Produkzioaren memoria ekonomikoa.

### 2. Telebista-produkzioaren finantzaketa-kudeaketa

- o Efektuen negoziazioa.
- o Epe labur edo luzeko banku-maileguak.
- o Sektoreko enpresen jarduerari eragiten dioten zerga garrantzitsuenak. BEZa. PFEZaren likidazioa.

### 3. Gatazken kudeaketa eta erabakiak hartzea

- o Negoziazioaren kontzeptua eta elementuak.
- o Negoziazio-estrategiak eta eragin-estiloak
- o Lan-inguruneko harremanek eragiten dituzten gatazka-egoerak ebaztea.
- o Arazoak ebazteko prozesuak.
- o Erabaki batean eragina duten faktoreak.
- o Taldean erabakiak hartzeko metodo ohikoenak.
- o Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak.

### 4. Motibazioa eta komunikazioa enpresan

- o Motibazioaren definizioa. Motibazioaren teoria nagusiak.
- o Motibatu dezaketen faktoreen diagnostikoa.
- o Komunikazio-motak eta -prozesuak.
- o Taldeko kideei esleitutako eginkizunak biltzen dituzten dokumentuen prestaketa.
- o Argibideak ahoz ematea, helburu batzuk lortzeko. Komunikazio-motak.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

### Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produktio laguntza